

SUPREMAZIA ZURIAREN GAITZA

AZALERATURIK DUTE

AEB-ETAKO HAUTESKUNDEEK

Giroa berotuz eta polarizatuz doa azaroaren 3an egingen dituzten AEBetako presidentetzarako bozketak hurbildu arau. Plaza harturik dute supremazista zuriek: izan koronabirusaren kontrako neurrien aurka mobilizatzen direnen artean, Black Lives Matter mugimenduaren kontrako protestetan zein Donald Trumpi sostengua erakusteko elkarretaratzeetan. Zurien nagusitasunaren aldarria ez da fenomeno berria amerikarren artean. AEBen oinarrian dago jendartearen antolaketa arrazista hau eta beti egon da –batzuetan begi-bistan, besteetan diskretuago–. Kontua da Trumpek askatu eta hauspotu duela ikuspegia.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Eman pauso bat atzera eta egon zaitezte prest erantzuteko”. Giroa tentsioduna baretu beharrean, mezu hau luzatu berri die Proud Boys milizia-kontrako supremazista zuriei Donald Trump AEBetako presidentea, Joe Biden presidentetzarako lehiakidearekin egindako eztabaidan. Azaroaren 3ko hauteskundeak aitzinatu arau, giroa berotuz doa eta armatuz doaz amerikarrak. Gerra zibilaren arriskua geroz eta gehiago dute ikusten. Koronabirusaren izurriteak ekarri bazuen armen erosten emendia, hauteskundeek are gehiago azkartu dute fenomenoak. National Instant Criminal Background Check System egitura dabil arma erosle berrien aurrekariak aztertzen eta martxoan 3,8 milioi eskaera aztertu zituen. Ekainean berriz, Georges Floyd afroamerikararen hilketaren salatza manifestazioak alde guztietan zirela, 4 milioiokoa izan zen kopurua.

AEBetako Konstituzioak dakarrelako armatua izateko eskubidea: “Milizia ongi antolatuta bat ezinbestekoa denez Estatu libre baten segurtasunerako, arma bat ukateko herritarrak duen eskubidea ez da inoiz urratua izango”. 1791n idatzirik horri buruzko eztabaidak egon arren –batzuk diote estatu federaleko loturiko miliziek dutela eskubidea, besteek berriz, herritarren eskubideaz ari dela testua–, aipamenak hor darrai eta Konstituzioak babesturik, arma daramate, determinaturik. FBIko agente izandako Michael Germanen analisia

interesgarria da supremazista zurien bilakaera aztertzeko. 1990eko hamarkadan talde hauek infiltratu zituen eta gaur egun Brennan Center for Justice institutuan dabil. Atxilotuak izateko beldurrez, hamarkada horretan supremazista zuri aktiboek manifestazioez –eta beraz polizia– urrun gelditzen baziren, Trump boterean denez geroztik hori aldatu dela dio. Barack Obama presidente zela loraturiko taldeak plazaren erdian dira 2017az geroztik. “Mugimendu hau ez da gehiago gobernuaren kontrako, gobernu federala ez delako gehiago bere etsaia. Ikuspegia aldatu du Trumpek, milizia orain Trumpekin aldeko formazio politikoak dira”. Ongi daki hori AEBetako presidentea eta “eman pauso bat atzera eta egon zaitezte prest erantzuteko” zentzuduna izan daiteke logika horretan.

Urrunago doa kontua; alde berean kokatzeaz gain, arerio bera ere identifikaturik du: antifaxistak. Talde terroristen zerrendan gehituko zituela jakinarazi zuen maiatzaren 31n, Georges Floyden hilketaren testuinguruan. “Presidenteak Black Lives Matter manifestazioak eta delako antifaxistak etsai gisa identifikatuz borrokatu beharrekoari buruzko mezu argia bideratzen die poliziarri baita talde hauei ere”, Germanen arabera. Funtsean, *Hidden in Plain Sight: Racism, White Supremacy, and Far-Right Militancy in Law Enforcement* (“Begi hutsez ezkutatua: arrazakeria, nagusitasun zuria eta eskuin muturreko militantzia polizian”)

txostena publikatu zuen Germanek agorriaren 27an, zeinetan xeheki frogatzen duen supremazista zuriek poliziarren baitan sarturik direla AEBetako doza bat estatutan. Dionaz, “arrazakeria esplizitu” hau hor dela badakite gobernuak zein FBI egiturak berak: “Poliziarren baitan ekintza arrazisten berri badakite, baina kanporaketak ala diziplina neurriak bideratzen dira soilik eskandalu publikoak gertatzen direnean”. 2015 urteko “terrorismoaren kontrako direktiba eta txostenean” jada, FBIk ohartarazi zuen supremazista zuriek daudela poliziarren baitan. Are gehiago, ekintza terrorista gehienak talde hauek bideraturikoak direla ere dio. Hala eta guztiz ere, gobernu federalak “araberako neurriak hartu ez izana” deitoratzen du Germanek. 1954tik 1968ra iraun zuen afroamerikarren eskubideen aldeko mugimenduari esker poliziarren baitako “arrazakeria esplizitu” hau mugatzeko neurriak bideratu baziren ere –polizia gehiegi zirelako KKK Ku Klux Klan talde supremazistaren baitan–, benetako aldaketarik ez zen bideratu. Vida B. Johnson unibertsitatearen hitzak hartzen ditu txostenean: “Xede duen zuzentasunaren helburua ezingo du bete sistemak, supremazista zuriek poliziarren baitan gordetzen segitzen duteino”.

“AEBen sorreraren oinarrian dago supremazia zuria, legeak eta praktikak santutua. Ipar Amerikaren kolonizazioaren, amerindiarren azpiratzearen eta



TRUMPISTAK

ESKUIN-MUTURREKO MILIZIA ASKOK DIOTE SOSTENGUA ERAKUSTEN DONALD TRUMP PRESIDENTEARI. GISA BEREAN, TRUMPEK BIDERATU MEZUAU TALDE HAUEI BIDERATURIKO BEGI-KLISKAK DIRA.

afrikar bahituen eta hauen ondorengo menperatzearen motorra izan da”, Germanen hitzetan. Horregatik da gaitza hain errotua eta hedatua. Oroitarazten du nola esklaboen patruilak izan ziren amerikar kolonietako lehen polizia-egitura publikoak.

AEB-EN OINARRIAN DAGO GAITZA

Esklabotza bukatu arren, supremazia zuriak bere horretan segitu zuen, baina beste forma bat harturik: segregazio politiken bidez. Bat dator irakurketa horrekin Françoise Coste *France Culture* irratiari emandako *Le suprémacisme blanc, le mal persistant de la politique étatsunienne* (“Supremazismo zuria, AEBtako politikaren gaitz iraunkorra”) elkarrizketan. Dioenez, goiz ala berant AEBetan gertatzen den orok du lotura esklabotza-

rekin: “Bada lau mende supremazismo zuria existitzen dela AEBetan. Leporaino sarturik dira arraza-problematika horretan”. 1861etik 1865era iraundako Gerra Zibilaren bidez esklabotza bukatu izana osagai gisa kokatzen du: “Trauma bat dago, 700.000 hil ondorioztatu zituen gerra horrena. Biztanleria zuriaren herra eta aiherkundea ere hor dira, mendeku gose bat dago. Oroz gainera, porrot politiko bat izan zen, esklabotzaren abolizioa izan arren, segregazioarekin ordezkatua izan zelako”. Zuriaren nagusitasuna indarkeriaren bidez segurtatu zela dio: indarkeria konkretua –1866an sorturiko eta oraindik hor diren KKK gisako talde bortitzen bidez–, segregazio politikoaren bidez, baita indarkeria ekonomikoaren bidez ere. Germanen gisara, Obamaren presidentetzan kokatzen du aldaketa po-

tentea Costek ere: “Biztanleriaren zati batek ezin izan zuen onartu Obamaren izendapena eta ezabatuz zihoan herra berpiztu zen, pentsaera arrazista askatu zen”. Gehitzen duenez, Trumpismoaren oinarrian eta mamian dago aldaketa hau. “Trumpek ez du KKKen aurpegi-estalkirik, baina ederki dakizki erabiltzen oinarri horrek arras ongi ulertzen dituen termino kodetuak”. Hori horrela, arerioak identifikaturik, herrari bidea irekiz, bi aldeak polarizatuz eta sua hauspotuz, geroz eta gehiagoz dute gerra zibilaren mehatxua ikusten. “Galdurik, Trumpek Etxe Zuria utzi behar balu ere, bere diskurtsoa hedatzen segituko lukeela aurreikusita daiteke” dio Marc Simard historialariak. Trumpek luzaturiko deiarri “prest gaude” erantzun dio Joe Biggs Proud Boyseko buruak. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i